

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2024IPLE0013
Eguna: 2024-12-19
Ordua: 19:00 – 19:33
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Marta Alonso Sarasola, udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

1. 2024ko azaroaren 26ko akta onartzea.
2. 2024-KALD0008 kreditu gehigarrien akats zuzenketa.
3. Kiroldegia birgaitzeko obrak finantzatzeko finantza-entitate batekin maileguaren kontratuaren esleipena.
4. Dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa zehatzaren hasierako onarpena.
5. Kale Nagusia 70eko sutearen inguruan hartutako neurrien informazioa ematea.
6. Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2024ko azaroaren 26ko akta onartzea.

Olaia zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dutenez, akta onartu egin da.

2.- 2024-KALD0008 kreditu gehigarrien akats zuzenketa.

2024ko urriaren 1eko ez ohiko osoko bilkuran hartutako erabakiaren akatsen zuzenketaren berri eman da. Alkateak azaldu du kiroldegiko obrarako kreditua eskatzeko kreditu gehigarri bat onartu zela, baina akats bat egin zela kapituluaren zenbakiarekin, eta horregatik egin dela akats zuzenketa, eta horren berri osoko bilkurari emateaz gain, GAO-n argitaratuko dela.

3.- Kiroldegia birgaitzeko obrak finantzatzeko finantza-entitate batekin maileguaren kontratuaren esleipena.

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpena eta udal-kontuhartzailearen txostena aurkeztu ditu, eta azaldu du mailegu kontratua sinatu aurretik, lizitazioa irabazi duen finantza-erakundeak kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar duela. Ondoren, proposatu du akordio hau hartzea:

LEHENENGOA.- Astigarragako kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obrak finantzatzeko 4.500.000 €-ko mailegu-eragiketa egiteko kontratu pribatua CAJA RURAL DE NAVARRA, S.COOP. DE CREDITO finantza-erakundeari (IFK: F 31021611) esleitzea, sei hilabeterako EURIBORaren gaineko % 0,280 portzentaje-puntuko interes-tasa diferentzialean – beti ere ordainketa modua sei (6) hileko ordainketa kuotara aldatzen bada indarrean dagoen legedia betetzeko eta hurrengo ataleko baldintza betetzen bada – lizitazioan puntuaziorik altuena lortu baitu (zehazki, 100 puntu) eta kontuhartzailearen txostenaren arabera, finantza-zuhurtziaren printzipioa betetzen duelako.

BIGARRENA.- Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, baldintza pleguen 13. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde aurretiko baldintzak egiaztatu.

HIRUGARRENA.-Udal diruzaina izendatzea Astigarragako kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obrak finantzatzeko epe luzerako kreditu-eragiketan datzan kontratu pribatuaren arduradun, eta horren ordezkotza udal kontu-hartzailea izendatzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Manex zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bere taldeak kreditua eskatzearen kontra bozkatu zuela, eta oraingoan abstenitu egingo direla.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 6 botoekin (Astigarragako EHBildu kideena) eta 2 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV kideena).

Alkateak aprobetxatu du udal kontuhartzaile berria aurkezteko, eta bide batez adierazi du diruzain berriak kargu hartuko duela abenduaren 23an.

4.- Dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa zehatzaren hasierako onarpena.

Alkateak proposatzen diren aldaketen nondik norakoak eta zergatiak azaldu ondoren, Ogasuna eta Ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Hasierako izaeraz onartzea dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzaren 15.3 , 15.4., 21. eta 23. artikulua eta horren testu bategina.*

Bigarrena.- *Toki Araubidearen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aho batez.

5.- Kale Nagusia 70eko sutearen inguruan hartutako neurrien informazioa ematea.

Alkateak, abenduaren 9an, Kale Nagusia 70an izandako sutearen ondoren udalak hartu dituen neurrien berri eman du. Azaldu du 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eskumena aitortzen diola hondamendi edo ezbehar publikoak gertatzen direnean edo horiek gertatzeko arrisku larria dagoenean, beharrezko neurri egokiak hartzea, horren berri berehala jakinaraziz udal osoko bilkurari.

Hartutako erabakien inguruan, azaldu du herriko bost familiari udalak harrera-etxeak utzi dizkiola (izan ere, etxeak ez daude bizitzeko moduan, eta ezin izango dira hilabetetan erabili), eta horretarako 4 etxebizitza babestu harrera-etxetat sailkatu direla. Gaineratu du orain arte herriko bi pentsioetan (Txingurri eta Astigarraga Pentsioa) hartu dutela ostatu, ezbeharra gertatu zen egunetik.

Bukatzeke alkateak adierazi du gizarte zerbitzuek familiei jarraipena egingo diela (laguntza psikologikoa, dirulaguntzak...) eta eremuko garbiketa berezia egingo dela.

6.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Añarbeko bigarren kanalaren obrak

Alkateak azaldu du Anuskako bizilagunekin bilera egin zutela abenduaren 12an obra honen inguruko informazioa ematea. Gaineratu du obra martxa onean doala, eta aurreikusten dela Anuskako eremuan egun gutxi barru bukatzea.

b.- Hiri tentsiodun izendatzeko eskaera

Alkateak azaldu du egin berri den tokiko gobernu batzarrak onartu dituela Astigarraga hiri-tentsiodun izendatzeko diagoniskoa eta justifikazio memoria, ekintza-plana eta Jaurlaritzari eskatzea izendapena egitea.

c.- Orbanen egia

Alkateak azaldu du hilaren 13an gerra zikinaren esparruan 70eko eta 80ko hamarkadetan eraildako lau ontziolei buruzko dokumentala estreinatu zela, eta bi proiektzio egon direla. Gaineratu du harrera ona izan duela, eta agian urtarrilean beste bi emanaldi antolatuko direla.

d.- Suhiltzaileak Kale Nagusiko obretara sartzeko arazoak

Herritar batek hartu du hitza, eta alkateari galdetu dio ea ezagutzen dituen suhiltzaileak berandu iristeko arrazoiak, eta ea haiek emandako txostena irakurri duen. Gaineratu duenez, suhiltzaile batek bi egunera esan zion denbora galdu zutela ingurua obrek hesituta zegoelako, hesiak kendu behar izan zituztela, eta Udalak errua enpresa kontratistari egotziko diola.

Alkateak erantzun dio ez duela zalantzan jartzen hori esan izana, baina suhiltzaileen txostenean ez duela horrelakorik jartzen. Irisgarritasun-arazorik ez zegoela esan du, eta hesiak bizilagunak ez ibiltzeko daudela, baina gauetan beti egoten dela anbulantzientzako eta suhiltzaileentzako bidea, eta garestia bazen ere, horregatik egin zela bide alternatibo bat eta suhiltzaileen bi kamioiak hortik sartu zirela. Gaineratu duenez, obrarik ez balego, ez legoke bide alternatiborik, eta kamioi handia ezin izango litzateke sartu, etxe horietara gotzean autoak aparkatuta egoten baitira.

Herritarrek adierazi du suhiltzaileak esan ziola gertatutakoa txostenean jasoko zela, eta horregatik galdetu duela.

Alkateak erantzun dio txostena 10ean edo 11n jaso zela, eta, ondoren, txosten hori pantailan jarri eta irakurri egin du. Amaitzeko, adierazi du egoera konplexua izango zela obrarik gabe ere, eta obra guztian larrietarako bide bat dagoela.

e.- Santiagomendiko estoldak garbitzeko erregistroz egindako eskaera

Herritar berak berriro ere hitza hartu eta adierazi du azaroaren 8an, erregistro bidez, aurkeztu zuela eskaera bat Santiagomendin – Plazaetxe inguruan – estoldak garbitzeko eta oraindik ez dela inor joan. Gaineratu du obretan eta zerbitzuetan gaiataz galdetu duenean esan diotela mahai gainean dutela, eta auzokide bati esan diotela urtarrilaren erdialdera pasatuko direla. Eta galdetu dio ea normala den bi hilabete behar izatea horrelako jarduketetan.

Alkateak erantzun dio ez duela gaia ezagutzen, baina galdetuko duela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2024ko abenduaren 19an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria.